

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Martha Pelloni jainkozale argentinarrak 2013ko "Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria jaso du

Nafarroako Gobernuak eta Laboral Kutxak adingabeen salerosketaren, sexu-abusuen eta bere herrialdeko haurren lapurretaren aurka egindako lana eskertu diote.

Lunes, 24 de febrero de 2014

Martha Pelloni jainkozale argentinarrak, astelehen honetan, otsailak 24, "Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria jaso du Nafarroako Jauregian, bere herrialdeko giza eskubideen alde egindako lanagatik, zehazki adingabeen salerosketaren, sexu-abusuen eta organo-trafikorako haurren lapurretaren aurka.



Barcina Lehendakaria eta Txomin García, Martha Pelloniri saria eman ondoren.

Sariaren bidez nazioarteko lankidetzako edozein alorretan nabarmentzen diren instituzio, erakunde edo pertsonen lana aitortzen da, batez ere [Milurtekoko Garapen Helburuak](#) lortzeko lanean ari direnena. 25.000 euroko saria da eta Nafarroako Gobernuak eta [Laboral Kutxak](#) ematen dute.

Tronu Aretoan gaur eguerdian egin den ekitaldian, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak eta Txomin García Laboral Kutxako lehendakariak Jorge Oteizaren eskultura bat eta diploma bat eman diote Martha Pelloniri. Sarituak aitortu du hunkituta dagoela, eta saria eman izana eskertu die, izan ere, "oso zaila da gobernuak gure lana saritzea, oro har gizarteko arazo horiek guztiek gure herrialdeko enpresari handien eta funtzionarioen bermea baitute".

Pellonik "tarteetan pertsonak daudenean prebenitzeko eta salatzen borroka" gisa definitu du bere lana, eta sariaren dirua biktimenzako zuzeneko arretarako izango dela esan du, adibidez, "poliziaren eta udalen artean botere handia duen sekta bateko orgietan abusuak jasan zituzten" eta bere Infancia Robada erakundeak babestutako hiru haurrentzat.

Bestalde, Nafarroako
Lehendakariak
egindako [mintzaldian](#) Martha
Pelloni zoriondu du "gizakien
salerosketa den bezalako
gizarteko gaitzak direla-eta bizitzan sufritzen duten emakume
eta haurren giza eskubideak sustatzeko" hainbat urtetan
egindako lanagatik.

Halaber, Barcina Lehendakariak eskuzabaltasunaren tea
elkartasunaren bidean aurrera egitera animatu du Pelloni,
ahulenen eta premia handienak dituztenen alde bidezkoagoa
den mundu bat eraikitzeke prozesuan bideratzen gaituen argia baita.

Txomin García Laboral Kutxako lehendakariak sarituaren "indarra, borondate irmoa eta izaera
menderaezina" azpimarratu ditu, "bidegabekeriak salatzeaz gain, horiei aurka egin eta mundu solidarioago
bat eraikitzeke lan egiten baitu". García "lider petoa eta borrokaren kudeatzaile ezin hobea" dela ere esan
du Martha Pelloniri buruz, "borroka egiteaz gain besteei ere horretan irakasten baitie".

Ekitaldian Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilariak eta Miguel Induráin epaimahaiburuak ere parte
hartu dute. Azken horrek saria emateko akta irakurri du. Ekitaldian izan dira, baita ere, Javier Morrás
Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria, Alberto Catalán Nafarroako Parlamentuko lehendakaria,
Carmen Alba Gobernuaren Nafarroako ordezkaria, Julio Gallastegui Laboral Kutxako zuzendari nagusia
eta Javier Cortajarena Nafarroako Laboral Kutxako lurralde-zuzendaria.

Ekitaldian [Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko](#) kantuko laukotearen musika egon da
entzungai. Carmen Arbizuk zuzendu du Andrea Jiménez (sopranoa), Erkuden Eceolaza
(mezzosopranoa), Rubén Lardiés (tenorra) eta Roberto Perdiguero (baritonoa) osaturiko taldea. Thoinor
Arbeau-ren "Amor que me cautivas", Luis Cluzeau Mortet-en "Vidalita de Cerro Largo" eta Resurrección
M^a de Azkueren Cancionero Popular Vasco bildumako "Orra or goiko" abestu dituzte.

Sarituaren meritua eta epaimahaia

"Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Sariarekin, epaimahaiak Martha Pellonik haurren eta
nerabeen trafiko, salerosketa eta sexu-esplotazioaren, haurren abusuen, drogazaletasunaren eta
emakumeenganako indarkeriaren aurka gauzatutako "prebenitzeko, laguntzeko eta borrokarako" ekintzak
aitortu ditu.

Saria emateko aktak Martha Pellonik egindako salaketak, familiei emandako laguntza eta "kasuak
argitzen eta gizakien duintasuna erabat errespetatzen ez zituzten lege eta jardun kaltegarriak aldatzen
lagundu duten" erreklamazioetan izandako irmotasuna ere nabarmentzen ditu.

Epaimahaiburua Miguel Induráin txirindulari ohia izan da, eta honako hauek gainerako
epaimahaiak: Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilaria, Javier Cortajarena Nafarroako Laboral Kutxako
lurralde-zuzendaria, Miguel Ángel Argal Nafarroako Medicus Mundiren sortzaileetako bat, Xavier Longan
Nazio Batuen Erakundeko Milurtekoko Kanpainako Hiri eta Tokiko Gobernuetik (Europa) harremanen
arduraduna, María Luz Ortega garapenerako hezkuntzan aditua eta Maider gabilondo Nafarroako
UNICEFeko koordinatzailea. Idazkari gisa jardun da Andrés Carbonero, Garapenari Arreta Emateko eta
Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuko zuzendaria.

Topaketak eta sarituaren hitzaldia, bihar

"Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria jasotzeko Foru Komunitatera bisitan etorri denez,
Martha Pelloni, bihar, otsailak 25, 10:30ean, Iruñeko [Cuatrocientos institutuko](#) 150 ikaslerekin elkartuko da.

Ikastetxea Hezkuntzako eta Gizarte Politiketako departamentuek eta GGKEren koordinatzaileak
sustatutako [Elkartasunaren aldeko eskolak](#) proiektuko partaidea da. Horren bidez, irakasleak trebatu eta



Barcina Lehendakaria mintzaldian.

aholkatzen dira, ondoren, ikasleak garapenerako eta laguntzarako garapenaren gaitan sentsibilizatzeko.

Horrez gain, bihar, asteartea, 20:00etan, Martha Pellonik hitzaldi bat eskainiko du, [Larraona Ikastetxe Nagusian](#), Argentinan giza eskubideak defendatzeko lanean izan duen esperientzia kontatzeko. Sarrera doakoa izango da.

Ilundaingo (Aranguren) [Haritz-Berri fundazioan](#) ere izango da, eta, [Proclade](#) fundazioak antolatuta, [Nafarroako Emakume Taldeen edota Feministen Erakundeen Koordinakundearekin](#) elkartuko da.

Martha Pelloni

Martha Pelloni Buenos Airesen (Argentina) jaio zen 1941. urtean, eta Misiolari Karmeldar Teresarren kongregazioko jainkozalea da. 1990. urtean, Argentinako Catamarca probintziako ikastetxe bateko errektorea zenean, María Soledad Morales ikaslearen bortxaketa eta hilketa bortitza hurbiletik bizi izan zituen. Geratera hark Martha Pellonik Argentinako haurren giza eskubideen aldeko konpromisoa hartzea ekarri zuen, batez ere adingabeen salerosketaren, sexu-esplotazio eta -abusuen, eta lapurreten aurka.

Urte hartan, 1990ean, Pellonik isiltasunaren ibilaldi bat antolatu zuen (bera buru izan zuten 82 ibilaldietatik lehena) María Soledaden hilketa argitu eta arduradunak epaitzeko bidean aurrera egiteko, eta zabaldu ziren ustelkeria eta botere-abusuen kasuetan Gobernuak probintziako hiru botereek esku hartzea dekretatzeko. Konpromiso publiko horren ondorioz, sarituak presio eta irain ugari jaso zituen.

Pellonik haurren lapurreta- eta salmenta-kasuak argitzeko lanetan ere hainbat familiari lagundu die. 2008an Haur Lapurtuen Sare Nazionala eratu zuen, Argentinako zazpi probintziatako 21 foro sozialek osatuta. Erakundearen helburua haurren eta nerabeen salerosketa eta esplotazioari aurre egitea, prebenitzea, laguntza ematea eta borroka egitea da, besteak beste. Jainkozaleak Santa Teresa fundazioa, nekazariei lagundu eta horiek trebatzeko, eta premia handiena dutenei laguntzeko Curuzú Cuatiáko Giza Eskubideen Etxea sortu ditu.

2005ean egindako lanagatiko nazioarteko esker ona jaso zuen Bakearen Nobel Sariaren hautagaitzarekin. Hautagaitzan izan ziren, baita ere, Bakearen Munduko Emakumeen erakundeko beste mila emakume.

"Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria

"Nafarroa" Elkartasunaren Nazioarteko Saria 2001. urtean sortu zen Laboral Kutxarekin elkarlanean. Sariaren helburua haien ibilbidean azpimarratzeko ekintzak gauzatu dituzten instituzio, gobernuz kanpoko erakunde eta pertsona fisikoen lana eskertzea da. Erakunde eta pertsona horiek garapenerako nazioarteko lankidetzaren edozein alorretan burutzen dituzte ekintzak eta, batez ere, Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko ahalegina egiten dute.

Laboral Kutxak sariaren finantziazio osoa hartzen du bere gain. 40.000 euro dira guztira: 25.000 euro saria eta 15.000 saria kudeatzeko gastuetarako. Bestalde, Gizarte Politiketako Departamentua sariari buruzko informazio zabaltzeko, epaimahaia eratu eta antolatzeko, hautagaitzak jaso eta aztertzeko eta saria emateko ekitaldiarekin loturiko zereginenez arduratzen da.

Aurreko 11 edizioetan, honako hauek jaso dituzte sariak: Mama Tunza kenyarra (2012), Manuel Elkin Patarroyo zientzialaria (2011), Creative Handicrafts GKEa (2010), Aguaricoko Bikariotza Apostolikoa (2009), Mama Samateh Saidy eta Wassu Gambia Kafo GKEa (2008), San Joan Jainkoarenaren Ordena Ostalaria (2007), Fe y Alegría mugimendua (2006), UNASO erakunde (2005), Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita (2004), Karitateko Ahizpa Misiolariak (2003) eta Muhhamad Yunnus (2002).

Galería de fotos



Barcina Lehendakaria, sarituarekin eta epaimahaiko kideekin.